DONOSTIA
SAN SEBASTIÁN

Pertsonen Kudeaketa
Gestión de Personas

Ijentea, 1 | Tel. 010 - 943481000 | www.donostia.eus
20003 Donostia / San Sebastián

**DONOSTIAKO UDALEKO 105 ADMINISTRARI PLAZA BEHIN BETIKO BETETZEKO DEIALDIA.**

2023ko urriaren 19an, Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko zinegotzi ordezkariak ebazpen bat eman zuen. Horren bidez, azken kalifikazioak argitaratu ziren lehentasun-hurrenkeran, eta hamar egun baliodunekoepea eman zen eskainitako lanpostuekiko lehentasun-ordena adierazteko.

IV. eranskinean adierazten zen zein pertsonak parte hartzen zuten modalitate orokorreko lanpostuen aukeraketan, eta modalitate horretarako deitutako plazen % 150 izan behar zuten, hau da, 146 pertsona.

Zerrendako zenbakietan izandako akats baten ondorioz, 142 pertsona sartu ziren; beraz, zerrenda zuzendu eta 146 pertsona sartu behar dira.

Horren ondorioz, Pertsonak, Ekonomia eta Aurrekontua kudeatzeko zinegotzi ordezkariak, Tokiko Gobernu Batzarraren 2023ko uztailaren 6ko Akordioak ematen dizkion eskumenez baliatuta eta Pertsonak Kudeatzeko zuzendariak proposatuta,

**EBATZI DU**

**Lehenengoa.- IV. eranskina** ("Sarbide orokorreko modalitatearen arabera lanpostuen aukeraketan parte hartzen dutenak") **zuzentzea**, eta 146 izangai sartzea modalitate orokorreko lanpostuen aukeraketan.

**Bigarrena.- Hamar egun baliodun eko epea** ematea, ebazpen hau argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, **IV. eranskinean** agertzen diren pertsonek lehentasun-hurrenkera adieraz dezaten eskainitako lanpostuekiko.

Lehentasun-ordena adierazteko dokumentua aurkeztu duten izangaiek ez dute berriro aurkeztu behar.

**CONVOCATORIA PARA LA PROVISIÓN DEFINITIVA DE 105 PLAZAS DE ADMINISTRATIVO/A DEL AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN.**

Con fecha 19 de octubre de 2023 el concejal delegado de Personas, Gestión Económica y Presupuestaria emitió una resolución mediante la que se publicaron las calificaciones finales en orden de prelación y se otorgó un plazo de diez días hábiles para manifestar el orden de preferencia respecto a los puestos de trabajo ofertados.

En el anexo IV se relacionaban las personas participantes en la elección de puestos de trabajo por la modalidad general, debiendo suponer el 150% del número de plazas convocadas por dicha modalidad; es decir, 146 personas.

Por un error en la numeración del listado se incluyeron 142 personas, por lo que procede corregir el listado e incluir 146 personas.

En su virtud, el concejal delegado de Personas, Gestión Económica y Presupuestaria, en uso de las atribuciones que le están conferidas por Acuerdo de la Junta de Gobierno Local, de fecha 6 de julio de 2023, y a propuesta de la Directora de Gestión de Personas,

**RESUELVE**

**Primero.- Corregir el anexo IV** “Participantes en la elección de puestos de trabajo por la modalidad de acceso general”, e incluir 146 personas aspirantes en la elección de puestos de trabajo por la modalidad general.

**Segundo.-** Otorgar un **plazo de diez días hábiles**, a contar desde el día siguiente al de la publicación de la presente resolución, para que las personas que constan en el **Anexo IV** manifiesten su orden de preferencia respecto a los puestos de trabajo ofertados.

Las personas aspirantes que ya han presentado el documento para manifestar su orden de preferencia no deben presentarlo de nuevo.

10740n XVII

**Hirugarrena.-** Izangaiei gogoraraztea lehentasun-ordena adierazteko, IV. eranskinean ageri diren pertsonek behar bezala beteta aurkeztu beharko dutela erantsitako lehentasun-adierazpenaren dokumentua (**VI. eranskina**).

**Tercero.-** Recordar a las personas aspirantes que para manifestar el orden de preferencia, las personas que constan en el Anexo IV deberán presentar debidamente cumplimentado el documento de manifestación de preferencia que se adjunta (**Anexo VI**).

**Laugarrena**.- Ebazpen hau Donostiako Udalaren iragarki taulan eta web orrian argitaratzea.

**Cuarto.-** Publicar la presente Resolución en el tablón de anuncios del Ayuntamiento de San Sebastián y en su página web.

Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio bideari. Interesatuek, nahi izanez gero, berraztertzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango dute ebazpena eman duen organoaren aurrean hilabeteko epean, edo zuzenean aurka egin Donostiako Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabete iragan baino lehen. Argitaratu eta hurrengo egunean hasiko dira aipatutako epeak. Hala ere, egoki jotako beste edozein errekurtso ere aurkeztu ahal izango da.

Contra esta resolución, que pone fin a la vía administrativa, las personas interesadas podrán interponer recurso potestativo de reposición ante el órgano que ha dictado la resolución en el plazo de un mes, o impugnarlo directamente ante el Juzgado Contencioso-Administrativo de San Sebastián en el plazo de dos meses. Los plazos señalados se computarán a partir del día siguiente al de su publicación. Todo ello sin perjuicio de la interposición del recurso que se estime conveniente.

Donostian, sinaduraren egunean.

PERTSONAK, EKONOMIA ETA AURREKONTUA KUDEATZEKO ZINEGOTZI ORDEZKARIA